

Alice MUNRO

ISABEL ETXEBERRIA RAMÍREZ

L I T T E R A T U R A U N I B E R T S A A L A



Etsaiak,
lagunak,
ezkongaiak,
maitaleak,
senar-emazteak

erein & igela

ALICE MUNRO

*Etsaiak, lagunak,
ezkongaiak, maitaleak,
senar-emazteak*

Isabel Etxeberria Ramírez

Itzultzailea

erein & *igela*

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Jatorrizko izenburua:

HATESHIP, FRIENDSHIP, COURTSHIP, LOVESHIP, MARRIAGE

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.

© 2001, Alice Munro

Eskubide guztiak erresalbatuta

Liburuaren azala eta diseinua: Antton Olariaga

© Itzulpenarena: 2018, Isabel Etxeberria Ramírez

© Hitzaurrearena: 2018, Xabier Olarra

© Argitalpen honena: 2018, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A.

ISBN: 978-84-9109-054-0

Legezko Gordailua: SS-284/2018



ALICE MUNRO (1931)

HITZAURREA

ALICE MUNRORI Nobel Saria eman ziotenean, «ipuin modernoaren arloko haren maisutasuna» azpimarratu zuen Nobel Sariaren Epaimahaiak. Lehenagotik «gure Txekhov» izendatua zuen aspalditxo Cynthia Ozick kritikari eta narratzaile estatubatuarra. Txekhov, alajaina! Saria, nolabait, aitortza bat zen, Kanadako literatura nazionala fundatzeko bildu ziren gazte batzuen ibilbideari egiten zitzaiona, edo halakotzat har zitekeen. Saria lor zezaketenen artean lehentxeagotik agertzen hasia zen Munro hautagai gisa, Margaret Atwoodekin batera, besteak beste. Idazle kanadar anglofonoek bi literatura erraldoiren artean –Ingalaterrakoa eta Estatu Batuetakoa– agertu behar izan zuten beren burua, beren literatura «nazionala» mamitzeko. Aitortza, beraz, talde batek –Atwood, Gibson Lee eta beste gutxi batzuek osatua– urte luzetan egindako lanari. Izan ere, idazle horiek argialetxeak, liburu-denda espezializatuak eta abar sortu eta abian jarri zituzten 60-70etako hamarkadetan, bai eta Idazle Kanadarren Batasuna ere.

Kasu bitxia da, dudarik gabe, Alice Munroena. Unibertsi-tatean hasi bazen ere idazten, eta irrati publikoari bere narrazio laburrak saltzen jarraitu arren hogeitaz urte inguru zituenetik, bere hasierako bilduma arrakastatsuak etxeakoandre zelarik osatu zituen, bi alabaz eta senarraz arduratzeari –oso gazterik ezkondu zen– «kentzen» zion denboraz baliatuta. Tarte horiez bakarrik baliatu ahal izateak, ordea, ez zion galarazi ipuin ugari idaztea, premia aseegin bat sentitzen baitzuen, oso txikitatik

erne zitzaiona. 2013ko elkarrizketa batean dioenez, oso goiz hasi zen interesatzen liburuez, zeren behin Andersenen ipuin bat irakurri omen zioten, *Sirenatxoa*, eta oso-oso tristea iruditu omen zitzaion. Sirenatxoa printzeaz maitemindu bai, baina ezin zen harekin ezkondu, sirena zelako, jakina. Eta halako tristura sortu omen zitzaion ikusita zer sufritu behar izan zuen gaixoak bere helburua –printzearekin ezkontzea– lortzeko, non etxetik atera, eta jira eta bira hasi omen zen ipuin bat bere baitatik sortzen, bukaera zoriontsukoa, uste zuelako sirenatxoak horrenbeste merezi zuela. Horrela jarraitu omen zuen txikitatik, berari «egokiak» iruditzen zitzaizkion istorioak sortzen, batzuetan bere burua protagonistatzat hartuta.

Gerora, ordea, berriki aitortu duenez, Emily Brontëren *Gailur Ekaiztsuak* irakurri omen zuen, eta laster ohartu omen zen mundu honek eta bertan bizi garenon historiak badituela bere alde latzak, eta tragediak ere bere lekua duela, bukaera zoriontsuak ez direla maiz gertatzen, eta alde latz horiek ere behar dutela beren lekua «eguneroko bizitza» kontatzea ardatz duen idazle batentzat. Baina kontua da bere buruari kontatzen zizkiola istorioak eta beretzat idazten zuela hasieran –eta betidanik, bere esanetan–, eta ez zuela pentsatzen istorio horiek besterentzat baliagarriak izango zirenik edo irakurriko zituztenik, baina unibertsitateko *Folio* aldizkarirako idatzitako bere lehenbiziko narrazioekin interesa piztu zien gerora bata bestearen ondotik senar izango zituen James Munro eta Gerald Fremlin ikaskideei. Hala ere, garai haietatik ia hogeitau urte igaroko ziren bere ipuinen lehenbiziko bildumarekin, *Itzal zoriontsuen dantza*, Governor General's Award izeneko saria eskuratu zuen arte, Kanadako sarririk garrantzitsuenetakoa. Hortik aurrera, kritikak harrera ona egin zien Munroren ipuin-bildumei mundu anglosaxoi osoan, eta haren ipuinak aldizkari ospetsuetan argitaratzen hasi ziren

–*The New Yorker*, *Harper's Magazine*, *Mademoiselle* eta *The Paris Review*, besteak beste–, eta halaxe jarraitu dute oraintsu arte.

Alberto Manguel idazle, itzultzaile eta kritikari argentinar-kanadar ospetsuak dio badirela ipuingile bikainak mundu osoa dutenak beren narrazioen gertaleku, hala nola Hemingway, Kipling, Cortázar; baina badirela beste batzuk –Txekhov, Rulfo, Flannery O'Connor, esate baterako– ez dutenak beren jaioterritik eta hurbileko ingurunetik harago joateko premiariak sentitzen. Azken horietakoa dugu Alice Munro. Oso gutxitan kokatzen ditu bere istorioak Ontarioko probintziako hegoalde-tik kanpo. Hori du bere mundua, eta aski du esan behar duena adierazteko. Lurrealde hori Munroren gurasoak bezalako eskoziar, irlandar, ingeles eta europar emigratuek populatua zen jatorriz, eta nekazaritzara eta basogintzara emandako jendearen bizileku. Protestantismo lehor eta gogor batek eragin erabatekoa zuen bertan XX. mende hasieran, gehienbat Kanadako Eliza Batuaren sineste eta balioen gisara moldatua zehazki.

Munroren literatur mundua, esan bezala, «eguneroko bizitza» da. Mundu hori populatzen duten gizon, emakume eta umeak (baina bereziki emakumeak) eguneroko bizitzak ezartzen dituen eginbehar eta nekeetarako bizi dira. Ez dago gertaera bereziki misterioitsurik, betidanik ezarritako moldeetan jaio, bizi eta hiltzen dira. Baina eguneroko bizitzetan zoriak eta ustekabeak nahitaez duten lekua aski da haien tragedia handi edo txikiak Ontario baino eremu zabalagoko jendeari hunkigarri gertatzeko, nahiz eta pertsonaiek berek ez duten muga horietatik kanpo esanguratsua izan daitekeen zerbait bezala bizi beren historia. Pertsonaia horiek beren bizitza arrunta bizi dute, ez dira ezeren sinbolo, baina hango nahiz hemengo irakurleak aise sumatzen du haien gorabeherak, haien bizimodua, haien pena

eta nekeak berari ere badagozkiola; alegia, hurbileko sentitzen dituela jende horien kezka, ezinegon eta miseriak.

Narrazio horietako askotan, bereziki hasierakoetan, adin-nagusitasunera heldu arteko nesken gorabeherak agertzen zaizkigu maiz, nerabezaroari lotutakoak gehienbat. Gurasoekin eta atzera utzitako hiriarekin adiskidetzen den neskaren gaia ere agertu ohi da, besteak beste, *Nesken eta emakumeen bizitza* izeneko narrazio kateatuen bilduman –batzuek nobelatzat hartzen dutena, ez egileak berak, ordea.

Hona zer dioen *Nesken eta emakumeen bizitzan* Munroren alter egotzat har dezakegun narratzaileak, bere adiskide bat gaupasatik etortzean aitak harrapatu eta jipoitu arren, «bizimodu normala» egin behar duela erantzuten dionean aitari:

«Zer zen bizimodu normala? Bere lankideen nesken bizitza al zen? Omenaldi-festak, harizko maindireak, sukaldeko bateriak eta zilarrezko mahai-tresnak, emakumezko ordena korapilatsu hori? Eta, horrekin batera, Gay-la dantzalekura joatea, errepide beltzetan zehar mozkortuta ibiltzea, gizonezkoen txisteak entzutea, gizasemeekin istiluan ibiltzea eta haiek jasan beharra, eta gizon horiexek lortzea, bai lortzea: alde bat ezin izan zitekeen bestea gabe, eta biak onartzean eta bietara ohitzean jartzen zen neska bat ezkontzara bidean. Ez zegoen beste modurik. Eta ni ez nintzen hori egiteko gai. Ez. Nahiago nuen Charlotte Brontë».

Brontëtarrek idatzitakoak zirrara berezia egin ziola dirudi. Goraxeago aipatutako elkarrizketan Emily eta haren *Gailur Ekaiztsuak* aipatu ondoren, oraingoan, nobelako narratzaileak gaupasatik etorrira Charlotte Brontëren *Jane Eyre, autobiografia bat* irakurtzen aritu dela esaten digu. Munrok 40 urte zituen *Nesken eta emakumeen bizitza* argitara eman zuenean, hiru alabaren ama

izana zen eta berriki dibortziatua. Nerabegaroko eta gaztaroko gorabehera eta korapiloez zertaz ari zen jakinik idatz zezakeen. Eta hori egiten zuen. Gerora, irakurleak eskuetan duen *Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak* bilduma honetan bezala, emakume helduen, bakarrik geldituen eta zaharren problematika agertuko da. Alice Munrok 70 urte zituen hizpide dugun ipuin-bilduma hori idaztean, eta aldaketa hori nola gertatu zen galdetu ziotenean hau erantzun zuen: «Aise auresateko moduan: bat hasten da idazten printzesei eta gatzetxoei buruz, eta gero etxekoandre eta adin handiko emakumeak agertzen dira, eta, gainera, ez dago propio horretan saiatu beharrik, berez etortzen da, norbera aldatu egiten da, ikuspegia aldatzen da».

Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak

Bederatzi kontakizun, Alice Munroren unibertsoan kokatuak, zeinetan gertaeren joanean ustekabeko batek edo bat-batean oroimenera ekarritako zerbaitek bizitza oso bat argitzen baitute. Hori du Munrok etxeko marka, horrela gertatzen da haren ipuinetan Joycek bere ipuin laburretan gauzatu zuen «epifania» kontzeptuak hartzen duen moldea, nahiz eta, segur aski, irlandarrarengandik zuzenean baino Eudora Weltyk –beti kanadarrarengan eragina izan zuten beste bi autorerekin aipatzen da, Flannery O’Connor eta Carson McCullers– bere *Revelation* ipuinean markatutako bidetik etorriko zaion, edo, besterik gabe, bere bide propioan aurrera egiteko tematik.

Gizon-emakumeen historiak, ohikoak eta aldi berean korapilatsuak ditugu Munrorenak, xehetasun handiz emanak sentipen eta inguruabarren aldetik. Egunerokotasunak gordetzen dituen misterioak emakume honen begirada eta ahots sakon eta zorrotzetik emanak ditugu aurrean liburu honetan ere.

Liburuaren izenburua nesken arteko jolasetako batetik hartua da. Honela azaltzen digu Munrok jolas horren funtsa liburuari izena ematen dion ipuinean:

«Mutil baten izena idatzi behar zen paper batean, eta ondoan norberarena. Gero, errepikaturik zeuden letrak ezabatu behar ziren, eta gainontzekoak zenbatu. Ondoren, hatzekin kontatu behar zen, lortutako zenbakira iritsi arte, eta bitartean bana-banaka aipatu: “Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak”. Eta halaxe jakingo zuten nolakoa izango zen mutilaren eta bien arteko harremana».

Azpimarratzekoa da, liburu honetan, haur-jolasetatik eta haur-kantetatik –antzinatik datorren «jakintza»tik, beraz– hartutako ideiak direla ipuinaren mamia agerian jartzen dutenak. Hori gertatzen da bai lehenengo horretan, eta bai azkenekoan ere, *Hartza mendi gainera igo zen* (beste haur-kanta baten izenburua), non ironiaz argi gelditzen den mendira igotzean hartzak duen asmoa –beste aldean zer dagoen ikustea– bete bai, betetzen duela, baina zer ikusiko ote handik: beste aldea, besterik ez. Ez dago, beraz, ezer miresgarririk ikusterik, baizik honantzaldetik igotzean ikusten dugunaren paretsuko zerbeit. Hori dio kantak. Ipuinaren izenburuan ez dago horrelako ondoriorik. Eta zeharka ipuinak hori adierazten duen ala ez, irakurleak erabaki beharko du, berak atera beharko ditu bere ondorioak; izan ere, Munroren beste ipuin askotan bezala, pertsonaien nondik norakoak argi eta zehatz ematen baitzaizkigu, ez ordea hortik atera daitezkeen ondorioak edo irekita gelditutako ibilbideetan pertsonaiek izango duten atarramentua.

Horrela, liburuko lehenbiziko istorioan, liburuari izenburua ematen dion horretan hain zuzen ere, nerabe batzuen txantxa

gaizto batek neskazahar gelditzeko zorian den neskame baten etorkizun aurreikusgarrian ustekabeko bira hartuko du. Hor ditugu nerabeak, eta hor neskazahar gelditzeko zorian den emakumea. Baina nerabeen gaiztakeriak ipuinari tentsio-puntua ematen badio ere, erdi-erdian emakume heldu horren gorabehera, pentsakizun eta erabakiak daude. Ikuspegia aldatu egin da, beraz, goraxeago esan den moduan.

Feminista goiztiartzat ote zuen bere burua galdetu ziotenean goian aipatutako elkarrizketa horretan, hona haren erantzuna: «Ez nuen “feminista” hitza ezagutzen, baina horixe nintzela feminista, nola ez. Egia esan, ni hazi nintzen Kanadako eskualdean emakumeak errazago izan zitezkeen idazleak gizonezkoak baino. Idazle handiak, jakina, gizonezkoak izan zitezkeen. Baina emakumeek ipuinak idaztea, segur aski, onargarriagoa zen gizonezko batek idaztea baino. Zeren hori ez baitzitezkeen izan gizon baten “lanbidea”. Hori guztia, jakina, nire gazte-denboran zen horrela, ez orain».

Horregatik, ipuin errealistak emakume-ikuspegitik idaztea ez omen zitzaion batere zaila egin. Emakumea izanik ez zuen inolako arazorik horretarako, hori baitzen bere pentsamoldea. Ez zuen horretaz pentsatu ere egiten. Bera hazi zen lekuan gauza berezi bat gertatzen omen zen, «nire inguruan inork irakurtzen bazuen, emakumeak ziren. Inork ikasketak baldin bazituen, emakumeak ziren askotan, maistrak eta abar, nire ama bezala; beraz, idazle-irakurleen mundua emakumeentzat itxia egon beharrean askoz irekiagoa zegoen gizonentzat baino; gizonezkoak, izan ere, nekazariak ziren edo bestelako lanak egiten zituzten».

Alberto Manguelek dio dezepzio bat izan zela berarentzat Munro ezagutzea. Ez omen zuen literaturaz hitz egin nahi, are gutxiago bere obraz; nekez ematen omen zuen irakurritako libururen bati buruzko iritziren bat, eta gutxiago garaikideren

bati buruz. «Baina ohartu nintzen inguruan genuen jendeari buruzko xehetasunei erreparatzen ziela etengabe, nire keinuei, geunden kafetegiko berezitasunen bati». Ulertzekoa da bere lanez hitz egin nahi ez izatea: bera hazitako eskualdean txikitatik erakusten omen zitzaien «azkarregiak» ez izaten. Eta bere dohai-nak ezkutatzen ere ohitu behar izango zuen «azkarregi» gisa ez agertzeko. Hala ere, sarrera labur honetan aipatu dugun *Nesken eta emakumeen bizitzan*, haren pertsonaiek maiz aipatzen dituzte liburuak: Tolstoiren *Gerra eta bakea*, Margaret Mitchellen *Hai-zeak eramana*, Pearl S. Bucken, *Lur ona*, goraxeago aipatutako C. Brontëren *Jane Eyre*, edo Scott Fitzgeralden mailako idazle bat.

Hori gertatzen da haren liburu «goiztiar» horretan, baina gauza bera esan dezakegu bilduma berrienez ere. Esate baterako, *Zorion handiegia* bildumako pertsonaiek maiz aipatzen dituzte liburuak eta idazleak, hala nola Nathaniel Hawthorneren *Gutun eskarlata*, Alfred Edward Housmanen *Shropshireko mutiko bat* (eta segidan Tennyson) edo *Sir Gawain eta Zaldun Berdea*, Eric Valentine Gordonen bertsioan ezagutuko zuena, segur aski. Aipamen horiek narratzailearenak berarenak edo pertsonaie-nak izan daitezke, esate baterako honela dio *Erradikal libreak* ipuinean narratzaileak: «Nita ez zen liburuak berriz irakurtzen ez dituztenetakoa, *Karamazov Anaiak*, *Flosseko errota*, *Usoaren begoak*, *Mendi magikoa*, behin eta berriz. Hartzen zuen liburu bat, zati berezi hura besterik ez zuela irakurriko pentsatuz, eta geratu ezinik aurkitzen zuen bere burua, oso-osorik berriz irentsi arte. *Fikzio modernoa ere irakurtzen zuen. Beti fikzioa. Gorroto zuen "ihesbide" hitza entzutea fikzioaz aritzerakoan. Argudia zezakeen, eta ez jolasean bakarrik, bizitza erreala zela ihesbidea. Baina gai garrantzitsuegia zen borri buruz eztabaidan jarduteko». Pertsonaia batek dio hori, bai, baina pentsa dezakegu beharbada egilearen beraren pentsamendua ez dagoela hortik urrun. Beraz, badirudi*

Munrok zera adierazi nahi duela, esan beharrekoa –bai literaturari buruz esan beharrekoa ere– bere narrazioetan dagoela. Eta ez ditu aipamen horiek aliritzira egiten, baizik ondo pentsatuta. Aipamen horiek, eta beste zenbait ere bai, pertsonaiei, giroari edo garaiari ondo egokituak izaten dira, esate baterako, bilduma honetako *Kontsolamendua* ipuinean Jeanny C. Rileyren 1968ko *country*-kanta ospetsu bat, *Harper Valley PTA*, aipatzen duenean. Pertsonaia batek aipatzen du bestela bezala, baina ipuinaren muina kanta horrexetan laburbildua dago.

Izan ere, beharbada *Beti esan izan nahi dizudan zerbait* bildumako *Materiala* kontakizunetik atera dezakegunaren arabera, Alice Munrorentzat hori da idazle baten bizitza: etengabe norberaren eta besteen estutasun, etsipen, zorion eta minei erreparatzea, eta hortik, gizon-emakumeon joan-etorri, ibilera oker eta pozbide txikiak, literaturaz ondo jantzirik, irakurleoi zalapartarik eta gehiegizko jakituriaz harrotuta ibili gabe eskaintzea. Hori bai, berak emakumearen ikuspegitik ematen digu, jakina.

Ikuspegiarena argi gelditu zen bere lehen bilduma, *Itzal zoriontsuen dantza*, hamabost urtean egindako lana, 1968an argitaratu eman zuenean, 37 urte beteak zituela, beraz. Ipuin guztietan gertatzen da hori, are protagonistak mutil gazteak badira ere –*Thanks for the Ride*–. Baina are garbiago gelditzen da zer zuen Munrok buruan gartzetandik idazle izateari zegokionez, *Bulegoa* kontakizunean, non etxeoandre batek, bere senarraren adostasunarekin, bulego bat alokatzen duen, idazlea omen denez, bere gaitasun horri bide emateko. Ez dago oso zorrotza izan beharrik ipuina irakurrita Virginia Woolfen *Gela bat norberarena* saiakeraren oihartzuna edo ekintzara pasa eta norberaren bidea egitearen seinalea ikusteko. Munrok beti esan du bere lehen senarrak bultzatu egiten zuela beraren dohain hori gauzatzeko bidean. Eta hori ikusten dugu narrazio horretan ere. Baina senarrak gain hor dago

gizasemeen mundua, eta bulegoaren alokatzaileak onberatasunez jantzitako oso bestelako jokabidea izango du.

Oihartzun hori, bestalde, bilduma honexetako *Asunak* kontakizunean ere aise hauteman liteke, Munro behin eta berriz itzultzen baita, azken bildumetan ikus daitekeenez, lehenbizikoetan agertzen ziren gai, pasadizo eta ideietara:

«Etxean jada, orduak pasatzen nituen idazten, behinola galeria izandako eta orain behin-behinean sukalde bihurtutako gelatxo batean, zurezko mahai baten aurrean eserita, leihoen ondoan. Idazle gisa bizimodua ateratzeko esperantza nuen. Eguzkiak laster berotzen zuen gelatxoa, eta hanken atzealdea –praka motzak jantzi ohi nituen– aulkian itsasten zitzaidan. Plastikozko sandaliek nire oinen izerdia xurgatzean sortzen zen kimika-usain ezti bitxia iristen zitzaidan. Gustuko nuen; nire langintzaren usaina zen, baita, espero nuenez, nire lorpenena ere. Idazten nuena ez zen nire bizimodu zaharrean patatak egosi bitartean edo arropak garbigailuko ziklo automatikoan danbadaka jiraka ari zirenean idaztea lortzen nuena baino hobea. Gehiago idazten nuen, eta ez okerrago. Hori zen dena».

Hala ere, Munrok bere lehenbiziko bilduman hartutako bi-detik bilduma honetara eta are hurrengoetara arte gero eta pauso sendoagoak eman dituzenez ibilbide horretan, eta duela hamabi urte *Castle Rocketik begira* izeneko bilduma azkenekoa izango zela esan eta gero *Zorion handiegia* eta *Bizitza maittea* bezalako harribitxiak eman dizkigunez gero, laurogeita hamarretik hurbil dabilen emakume txundigarri honen hurrengoaren zain gelditu beharko.

X. Olarra
2018ko otsaila

ALICE MUNRO



*Etsaiak, lagunak,
ezkongaiak, maitaleak,
senar-emazteak*

Sarah Skinner-i, esker onez

ETSAIAK, LAGUNAK, EZKONGAIK, MAITALEAK, SENAR-EMAZTEAK

DUELA ZENBAIT URTE, trenak oraindik bigarren mailako hainbat bide-adarretatik ibiltzen zirenean, bekoki oreztatsu eta ile kizkur gorriko emakume bat sartu zen tren-geltokira, eta altzariak bidaltzerik ba ote zegoen galdetu zuen.

Geltokiko langilea emakumeak limurtzen saiatzen zen maiz, halakorik eskertzeko itxura zuten zatartsuak bereziki.

–Altzariak? –esan zuen, inork lehenago halako burutaziorik izan ez balu bezala–. Bai. Tira. Zer altzari motaz ari gara?

–Jangelako mahai bat eta sei aulki. Logela bateko altzari sorta osoa, sofa bat, sofa aurreko mahai, txokorako mahaiñoak, zutikako lanpara bat. Arasa bat eta ontzitegi bat ere bai.

–Arraioa! Etxe oso bat da hori.

–Ez nuke hainbeste esango –erantzun zuen emakumeak–. Ez dago sukaldeko zerik; logela baterako adinakoa baino ez.

Emakumearen hortzak ahoaren aurrealdean pilaturik ageri ziren, liskarrerako prest baleude bezala.

–Kamioia beharko duzu –esan zuen gizonak.

–Ez. Trenez bidali nahi ditut. Mendebaldera eramatekoak dira, Saskatchewanera.

Ozenki mintzo zitzaion, gizona gorra edo ergela balitz bezala, eta bazegoen zerbait haren ahoskatzeko moduan. Azenturen bat. Gizonari nederlandera etorri zitzaion burura –holandar asko ari ziren iristen inguru hartara–, baina emakume hark ez zuen

holandar emakumeen mardultasuna, ezta haien azal arrosa polita edo ile horaila ere. Berrogeitik behera izango zituen, baina gutxi axola zuen horrek. Ezin esan edertasunaren erregina bat zenik.

Harira jo zuen.

–Lehenengo, kamioia beharko duzu, altzariak dauden tokitik hona ekartzeko. Eta begiratu beharko genuke ea Saskatchewaneko herri horretatik tren pasatzen den. Bestela, nola edo hala moldatu beharko zenuke baten bat altzarien bila joateko; Reginara, adibidez.

–Gdynia da herria –esan zuen emakumeak–. Pasatzen da tren.

Gizonak azal koipetsuko helbidetegi bat hartu zuen iltze batetik, eta izena letreiatzeko eskatu zion. Emakumeak bere poltsatik paper zati bat atera, eta lokarri batez zintzilik zegoen arkatza hartuta, izena idatzi zuen: G D Y N I A.

–Zer izen mota ote da hori?

Ez zekiela erantzun zuen emakumeak.

Gizonak arkatza beretu zuen, eta trenbideen lineak aztertzen hasi zen.

–Badira hor zehar leku mordo bat txekiarrez, hungariarrez eta ukrainarrez beteak –esan zuen.

Bota orduko, emakumea haietariko bat izan zitekeela otu zitzaion. Eta hala ere, zer; errealitate bat adierazi baino ez zuen egin.

–Hemen da. Bai horixe, trenaren bidean dago.

–Bai –esan zuen emakumeak–. Ostiralean bidali nahi ditut. Ahal izango duzue?

–Bidali bidal ditzakegu, baina ezin dizut ziurtatu zer egunetan iritsiko diren –erantzun zuen gizonak–. Lehentasunen arabera. Egongo al da inor zain, iristen direnean?

–Bai.

Etsaiak, lagunak,...

–Tren misto bat da. Ostiralean, arratsaldeko ordu biak eta hemezortzian. Kamioia ostiral goizean pasatuko da altzarien bila. Herrian bizi zara?

Baiezkoa egin zuen emakumeak, eta helbidea idatzi zuen.
106 Exhibition Road.

Denbora gutxi zen etxeei zenbakia jarria zietela herrian, eta gizonak, Exhibition Road non zen bazekien arren, ezin zuen toki zehatz hura kokatu. Emakumeak une hartan McCauley izena aipatu izan balu, interesa piztuko zitzaion beharbada gizonari, eta beste modu batean gertatuko zen dena. Etxe berriak zeuden han, gerraostean eraikiak, nahiz eta jendeak «gerra-garaiko etxeak» esaten zien. Haietariko bat izango zela pentsatu zuen.

–Altzarien bila etortzen zaizkizunean ordaindu behar duzu –esan zion.

–Bidaia-txartel bat ere nahi dut, niretzat, tren berean. Ostiral arratsaldean.

–Leku berera?

–Bai.

–Torontoraino tren berean joan zaitzke, baina han Trans-kontinentalaren zain geratu beharko duzu; gaueko hamar eta erdietan abiatzen da. Ohe-bagoia ala normala? Ohe-bagoian ohexka duzu; bagoi normalean, eserlekua.

Eserita joango zela erantzun zuen.

–Sudburyn, Montrealetik datorren trenari itxaron behar diozu, baina ez duzu trenetik jaitsi behar; zuen trena beste bide batera mugitu, eta han Montrealekora lotuko dute. Handik, Port Arthurrera, eta gero, Kenorara. Reginaraino, jaitsi gabe. Han bai, jaitsi, eta aldirikoa hartu.

Baiezkoa egin zuen, txartela eman ziezaion behingoz.

Gizona astiroago mintzatu zen:

–Baina ezin dizut ziurtatu altzariak zurekin batera iritsiko diren; egun bat edo bi gehiago beharko dute, ziur aski. Lehen-tasunen arabera. Egongo al da inor zure zain han?

–Bai.

–Ondo. Geltokia ez baita gauza handia izango. Hango herriak ez dira hemengoak bezalakoak. Oinarri-oinarrizkoa baino ez dute izaten han.

Emakumeak bidaiatzaile ordaindu zuen, poltsa barruko oihalezko zorrotxo batetik billete sorta kiribildu bat aterata. Amonatxo batek egingo lukeen bezala. Atzerakoak ere zenbatu zituen. Ez amonatxo baten gisan, ordea; esku zabalduan ikuskatu zituen, begirada azkar batez, baina bistan zen zentimo bat ere ez zitzaioela itzuri. Gero, jiratu, eta alde egin zuen zakar, agurtu gabe.

–Ostiralera arte –oihu egin zion gizonak.

Emakumeak beroki luze eta hits bat zeraman, lokaridun zapata zarpailak eta galtzerdi motzak, iraileko egun bero hartan.

Gizona kafea ateratzen ari zen termotik emakumeak, buelta hartuta, leihatilan kax-kax jo zuenean.

–Bidali nahi ditudan altzariak –esan zuen– onak dira; berriak ia. Ez nuke nahi harramazka edo kolperen bat hartuta iristea, edo beste moduren batean hondatzea. Ezta ganadusaina hartzea ere.

–Jakina –erantzun zuen gizonak–. Tren konpainiak eskarmentu handia du gauzak garraiatzen. Eta ez ditu bagoi berak erabiltzen altzariak eta txerriak garraiatzeko.

–Abiatzen direnean bezain ondo iristea nahi dut, besterik ez.

–Ondo da. Entzun. Altzariak behar ditugunean, dendan erosten ditugu, ezta? Baina, pentsatu al duzu inoiz nola iritsi diren hara? Altzariak ez baitituzte dendan fabrikatu, edo?

Etsaiak, lagunak,...

Ez. Lantegiren batean egingo zituzten, hor nonbait, eta gero dendara bidali; trenez, ziur aski. Ez al zaizu iruditzen, beraz, ondo baino hobeto jakin behar duela, nork eta tren konpainiak, halakoak nola erabili?

Gizonari begira geratu zen, serio, ateraldi hura emakumeen ohiko ergelkeria bat izan zela onartzeko itxura ez zuela.

–Ea, ba –erantzun zuen emakumeak–. Ea egia den.

Tren geltokiko langileak, askorik pentsatu gabe, herrian bizi ziren guztiak ezagutzen zituela esango zuen. Egiaz, haietariko erdiak edo ezagutuko zituen. Eta ezagutzen zituenetatik gehienak kaletarrak ziren, eta «natiboak»; hau da, ez ziren atzo goizean iritsiak, eta ez zuten denbora gutxian alde egiteko asmorik. Saskatchewanera joatekoa zen emakumea ezezaguna zitzaion ez zelako beraren parrokiara joaten, ez zelako beraren umeen andereño, eta ez zuelako lan egiten berak ezagutzen zituen denda, jatetxe edo bulegoetako batean. Ez zegoen ezkondata, gainera, bera bezala Elksera edo Oddfellowsera edo Lions Clubera edo Beteranoen Elkartera joan ohi ziren gizonetariko batekin. Haren ezker eskuari begiratu bat emana zion dirua ateratzen zuen bitartean, eta ezkongabea zela ondorioztatua zuen, espero bezala. Zapata haiek, pantiak ez baizik eta galtzerdi motzak erabiltzeak, eta arratsaldea izanik ez eskularrurik ez kapelarik eramateak baserritarra izan zitekeela iradokitzen zuten. Baina ez zuen ageri halakoen aire zalantzati eta lotsakorra. Ez zituen baserritarren manierak; egia esan, ez zuen manierarik batere. Informazio-makina bat balitz bezala tratatu zuen. Gainera, herriguneko helbide bat idatzi zuen: Exhibition Road. Behinola telebistan ikusi zuen moja abitu gabeko bat gogorarazi zion. Oihanean nonbait egiten ari ziren

misiolari-lanaz hizketan jardun zuen –ziur aski, han utziko zioten abitua janzteari, errazago ibiltzeko gora eta behera–, eta, noiz edo noiz irriren bat egin bazuen ere bere erlijioak jendea zoriontsu egiten zuela erakusteko, denborarik gehienez munduko biztanle guztien azken xedea bere aginduak betetzea zela sinetsiko balu bezala begiratu zien ikusleei.

Bazuen Johannak beste egin beharreko bat, ordura arte geroratzen ibili zena. Milady's izeneko arropa-dendara joan behar zuen, jantzi bat erostera. Lehen aldia zen denda barrura sartzen zela; zerbait erosi beharra zuenean, galtzerdiak kasurako, Callaghans Gizon, Andre eta Haurrentzako Jantziak izenekora joan ohi zen. Arropa mordo zuen Willets andrearengandik jaso; soinetik kentzen ez zuen beroki hura, adibidez. Eta Sabithari –McCauley jaunarenean zaintzen zuen neskatoari– parrastaka iristen zitzaizkion arropa garestiak lehengusinegandik.

Milady'seko erakusleihoan bi maniki zeuden, gona motz samarrak eta forma karratuko jakatxoak jantzita. Trajeetako bat urre kolore herdoiltsu batekoa zen, eta bestea berde ilun leuna. Manikien oinetan sakabanaturik eta erakusleihoan hantzenka itsatsita, paperezko astigar-hosto handi eta nabarmen batzuk ageri ziren. Jende gehienak hostoak batzeaz eta erretzeaz kontu hartzen duen urtaroan, haiexek hautatu zituzten han apaingarri. Beiratean, diagonalean itsatsita, errotulu beltz bat zegoen, eskuzko idazkera imitatzen zuena: *Dotoretasun soila, udazkenerako moda*.

Atea ireki, eta barrura sartu zen.

Bere aurreantxe, goitik beherako ispilu batek bere irudia erakutsi zion, Willets andrearen kalitate oneko beroki luze

Etsaiak, lagunak,...

eta moldegabea jantzita, haren azpitik eta galtzerdi laburren arterainoko zatian hanka biluzi eta pikortsuak agerian zituela.

Nahita egiten zuten, jakina. Propio jarria zuten ispilua han, bezeroa bere hutsez ondo jabetu zedin sartu orduko, jarraian –hala espero zuten haiek– irudi hura aldatzeko zerbait erosi behar zuela ondorioztatuko zuelakoan. Hain zen begien bistakoa trikimailua ezen hanka egingo zuen, zertara joana zen hara argi izan ez balu.

Horma batean gaueko soinekoz beteriko esekitoki bat zegoen, dantzaldiko erreginentzakoak denak, beren sare eta tafetekin, beren ametsezko koloreekin. Eta harago, beirazko erakustoki baten barruan, profanoen hatzek ez ukitzeko moduan, dozena erdi eztei-jantzi, zuri aratzak edo banila satinatuak edo boli koloreko parpailadunak, beira alez edo perlaz brodatuak. Gerruntze ñimiñoak, eskote oxkarratuak, gona joriak. Gazteagoa zenean ere ez zuen inoiz halako nabarmenkeriarik begietsi; ez diruari zegokionez, baina ezta itxaropenari –eraldaketa eta zoriontasunaren esperantza zentzugabeari– zegokionez ere.

Bizpahiru minutu pasatu ziren, eta han ez zen inor ageri. Beharbada behatxuloren batetik begira ari zitzaizkion, noiz alde egingo zain, haien estiloko bezeroa ez zela eta.

Baina ez zuen alde egiteko asmorik. Ispiluaren isla-eremutik aurrera egin zuen, eta atalaseko linoliotik alfombra bigun batera igaro zen. Azkenean dendaren atzealdeko gortina ireki, eta Milady bera agertu zen, botoi distiratsuko traje beltz bat soinean. Takoi altuak, orkatila finak, azpiko gona estua –hain estua ezen pantien igurtzia entzun baitzitekeen–, ile urrekara atzerantz orraztua, aurpegi makillatua.

–Erakusleihoko trajea proba nezakeela bururatu zait –esan zuen Johannak, entseatutako ahots batez–. Berdea.

–O, traje zinez zoragarria da hori –esan zuen andreak–. Erakusleihoan dagoena hamarra da, oker ez banago. Eta zurea... hamalaua, agian?

Johannari bizkar eman, eta eguneroko arropak eskegita zeuden aldera jo zuen.

–Zorteko zara. Hemen hamalaua.

Johannak salneurriaren etiketari begiratu zion lehenengo: espero baino bi aldiz gehiago, aise. Eta argi adierazi nahi izan zuen bere iritzia.

–Garestia da.

–Oso artile fina da –saltzaileak janzkia eskuztatu zuen tarte batez, etiketa bilatzeko itxurak eginez, eta ehunaren deskribapena irakurtzeari ekin zion gero, Johannak kasurik egin gabe barrenak bilatu eta azpilduraren kalitatea aztertzen zuen bitartean.

–Zetazkoa balitz bezain arina sentitzen da azalean, baina burdinazkoa balitz bezala irauten du. Goitik behera forraturik dago, ikusten duzunez, zeta eta rayon zoragarrian. Ez dizu poltsarik egingo atzealdean, eta ez du emango, jantzi merkeek ohi duten moduan. Erreparatu al diozu belusari, eskumuturretan eta lepoan? Eta ikusi al dituzu mahuketako belusezko botoitxoak?

–Ikusten ditut.

–Xehetasun horiexengatik ordaintzen dugu, azken batean. Ezin bestela izan. Belusaren ukitua ezin atseginagoa da. Berdeak baino ez du ukitu hori; abrikot kolorekoak ez du halakorik, nahiz eta prezioa bera den bientzat.

Egiaz, lepoko eta eskumuturretako belusa zen, Johannaren begietara, trajeari luxuzko eite sotil hura ematen ziona, eta horrexek bultzatu zuen jantzia erosi nahi izatera. Baina ez zuen halakorik aitortzeko asmorik.

–Probatu egingo nuke, bada.

Azken batean, horretarako prestatuak etorria zen. Barruko arropa garbia, eta talko-hauts freskagarriak besapeetan.

Dendariak Johanna probagela argitsuan bakarrik uzteko bezainbesteko zentzu ona izan zuen. Pozoia balitz bezala ekidin zuen ispilua Johannak, gona bere lekuan eta jaka lotuta izan zituen arte.

Hasieran trajeari bakarrik begiratu zion. Dena ondo. Dena neurrian. Gona ohi zuen baino laburxeagoa, aukeran; baina ohi zuena ez zen modakoa. Arroparekin ez zegoen batere problemarik. Trajetik kanpo ikusten zena zen arazoa. Bere lepoa eta aurpegia eta ilea eta esku handiak eta hanka mardulak.

–Zer moduz hor barruan? Inporta al zaizu begiradatxo bat egiten badizut?

Begiratu nahi duzun guztia, pentsatu zuen Johannak, zerrama bat zetaz jantzirik, horixe ikusiko duzu.

Emakumeak alde batetik begiratu zion lehenengo, eta bestetik gero.

–Pantiekin eta takoiekin ikusi beharko da, noski. Eroso al duzu?

–Arropa ondo dago –esan zuen Johannak–. Arropari ez zaio ezer gertatzen.

Emakumearen aurpegia mudatu egin zen ispiluan. Irribarre egiteari utzi zion. Etsia harturik eta nekatuxea ematen zuen, baina adeitsuagoa aldi berean.

–Halaxe gertatzen da batzuetan. Probatu arte ezin izaten da jakin. Kontua da –esan zuen, ahotsean ziurtasun berri eta neurtuago bat ernetzen zitzaiola–, kontua da gorpuzkera polita duzula; sendoa, hori bai. Hezur handiak dituzu, bai, eta? Bistan da: belusez forratutako botoitxoak ez dira zuretzat. Ez eman buelta gehiago. Ken ezazu.

Berriro barruko arropa jantzirik zegoela, kolpetxo bat entzun zuen Johannak, eta esku bat agertu zen gortinaren ertzetik. —Ea zer moduz beste honekin.

Artilezko soineko marroi bat zen, marraduna: izurretan dotore bilduriko gona zabala, hiru laurdeneko mahukak, eta eskote soil biribila. Soineko ximple-ximplea zen, salbu eta gerriko mehe urrekarakatik. Ez zen aurreko trajea bezain garestia, eta, hala ere, altuegia zen oraindik ere prezioa, halako jantzi baterako.

Gonaren luzera egokiagoa zen behintzat, eta ehunak zirimola airos bat eratzen zion hanken inguruan. Adorea bildu, eta ispilura begiratu zuen.

Oraingoan behintzat ez zirudien txantxa baterako mozo-rotua.

Emakumea ondora etorri zitzaion, eta barre egin zuen, lasaitua hartu izan balu bezala.

—Zure begien kolorekoa da. Ez duzu belusa jantzi beharrik. Begiak dituzu belusezkoak.

Trufatik gertukoa iritziko zion balaku hari beste noizbait, baina une hartan egiazkoa iruditu zitzaion. Bere begiak ez ziren handiak, eta kolorea deskribatzeko eskatu izan baliote, «marroixkak edo» erantzungo zuen. Une hartan, ordea, marroi ilun, leun eta distiratsu batekoak begitandu zitzaizkion.

Kontua ez zen bat-batean bere burua eder ikusten hasia zela, ez horixe; baina bere begiek, oihal bat izatera, kolore polita luketela iruditzen zitzaion.

—Egingo nuke ez dituzula takoidun zapatak sarri erabiltzen —esan zuen emakumeak—. Baina pantiak eta zapata itxuroroso batzuk jantziko bazenitu... Eta ziur aski ez duzu bitxiak erabiltzeko ohiturarik. Eta arrazoi duzu: ez duzu horrelakorik behar, nahikoa da gerrikoa.

Saltzailearen parrastada moztu nahi izan zuen Johannak:

Etsaiak, lagunak,...

–Tira, hobe dut erantzi, paketea prestatzen has zaitezten.

Pena ematen zion gonaren leuntasuna eta gerri inguruko xingola urrekara sotila gainetik kentzeak. Lehenengoz bere bizitzan, jantzen zuenak ederragotzen zuelako sentimen txoroa nabaritzen ari zen.

–Egun berezi baterako izango da? –galdetu zuen emakumeak, Johannak presaka bere betiko arropa hitsak jantzen zituen bitartean.

–Nire ezkontza egunean jantziko dut ziur aski –erantzun zuen Johannak.

Harritu egin zen bere ahotik hura entzunda. Ez zen hanka-sartze larria; emakume hark ez zekien nor zen bera, eta ziur aski ez zuen hitz egingo biek ezagutzen zuten inorekin. Hitzik ez esateko erabaki irmoa hartua zuen, hala ere. Saltzaile hari zerbait zor ziola sentitu zuen, beharbada; jantzi berdearen deskalabrua eta marroiaren aurkikuntza elkarrekin bizi izanak haien artean lotura bat eratu balu bezala. Txorakeria galanta. Emakume hura bere lana egiten ari zen, arropak saltzen, eta lortua zuen bere helburua.

–O! –oihu egin zuen emakumeak–. O! Gauza xarmagarrigorik!

Tira, pentsatu zuen Johannak, agian bai, eta agian ez. Zer zekien hark norekin zen ezkontzekoa? Izan zitekeen baserritar miserable bat, mandoarena egingo zion norbaiten bila, edo erizaina behar zuen agure ezindu eta hatsankari bat. Emakume hark ez zuen ideiarik ere zer gizon klase lortua zuen, eta nolana ere, ez zitzaion axola.

–Eta esango nuke maitasun-ezkontza bat dela –esan zuen emakumeak, pentsakizun gaitzituok irakurri izan balitu bezala–. Horregatik dute zure begiek halako distira. Zeta-paperean bildu dizut. Paketea irekitzen duzunean, eskegi ezazu, eta berez

hartuko du taxua ehunak. Lisaburdina pasatu ahal diozu arinki, nahi baduzu, baina ziur aski ez du behar ere izango.

Ondoren, diru-trukea egin zuten. Ez begiratzeko itxurak egin zituzten biek, baina biek begiratu zuten.

–Erosketa ona egin duzu –esan zuen emakumeak–. Bizitzan behin baino ez gara ezkontzen. Tira, beti-beti ez da horrela izaten, baina...

–Nire kasuan horrela izango da –esan zuen Johannak. Lotsagorritu egin zen; izan ere, behin ere ez zuten ezkontza aipatu. Ezta azken gutunean ere. Bere esperantza ezagutarazi zion emakume hari, eta desegokia izan zitekeen.

–Non ezagutu zenuen? –galdetu zuen emakumeak, poztasun malenkoniatsuzko tonuari eutsiz–. Nolako izan zen lehen enkontrua?

–Familiaren bitartez –erantzun zuen Johannak, zintzo. Ez zuen besterik gaineratzeko asmorik, baina bere burua entzun zuen berriro hizketan–. Mendebaldeko Ferian. Londonen.

–Mendebaldeko Ferian –esan zuen emakumeak–. Londonen –baina tonu hartan berdin esan zezakeen «gorteko dantzaldian».

–Haren alaba eta lagun bat gurekin ziren –esan zuen Johannak, eta pentsatu zuen neurri batean zehatzagoa zatekeela esatea bera, Johanna, zegoela gizonarekin, Sabitharekin eta Edithekin.

–Bueno, gaurkoa probetxuzko eguna izan dela esan liteke. Emaztegai zorionsua izateko jantzia lortu diot norbaiti. Horrek nahikoa justifikatzen du nire bizitza –emakumeak xingola arrosa bat lotu zuen jantziaren kaxaren inguruan, begizta handi eta alferrikako bat egin zion gainean, eta azken guraize-ukaldi bat eman zion.

–Egun osoa pasatzen dut hemen –esan zuen–. Eta, zenbaitetan, zertan ari naizen galdetzen diot neure buruari. Pentsatzen dut: zertan uste duzu ari zarela hemen? Erakusleihoa aldatzen

dut, eta hau eta bestea egiten dut jendea barrura erakartzeko, baina badira egunak... badira *egunak*... non arimarik ere ez den sartzen ate horretatik. Bai, badakit; jendeari garestiegiak iruditzen zaizkio hemengo arropak. Baina *onak* dira. Jantzi onak dira. Kalitatea nahi baduzu, ordaindu egin behar duzu.

—Hona etorri beharra izango du jendeak horrelako zerbait behar duenean —esan zuen Johannak, gau-jantziei begira—. Nora joango dira, bestela?

—Hori da, ba, kontua. Ez direla etortzen. Hirira joaten dira. Ehun kilometro egiten dituzte, edo ehun eta berrogeita hamar, gasolina-gastuari erreparatu gabe, nik hemen dudana baino zerbait hobea topatuko dutelakoan horrela. Eta ez. Ez kalitate hobea, ez aukera zabalagoa. Ezer ez. Baina lotsa ematen die esateak herrian erosi dutela eztei-jantzia. Beste batzuetan sartu sartzen dira, eta arroparen bat ere jantzen dute, eta pentsatuko dutela esaten didate. Beste batean etorriko naiz, esaten dute. Eta nik neure kabutan: bai, bai, ondotxo dakit nik zer esan nahi duen horrek. Esan nahi du jantzi hori bera merkeago topatzen saiatuko direla Londonen edo Kitchenerren, eta merkeago topatzen ez badute ere berdin-berdin erosiko dutela, harainoko bidea egin eta gero eta bila ibiltzeaz nazkatuta. Ez dakit, agian bertokoa banintz bestela litzateke. Itxi samarrak dira hemen, nire ustez. Zu ere ez zara bertokoa, ezta?

—Ez —esan zuen Johannak.

—Ez al zaizu iruditzen itxiak direla?

Itxiak.

—Esan nahi dut zaila dela kanpotik etorritakoarentzat bere lekua topatzea.

—Ni ohituta nago neure kabuz moldatzen —esan zuen Johannak.

—Baina zuk norbait topatu duzu. Ez duzu jada zeure kabuz moldatu beharrik. Ez al da zoragarria? Batzuetan pentsatzen dut zeinen ona litzatekeen ezkontuta egotea eta etxean geratu ahal izatea. Tira, garai batean egon nintzen ezkontuta, baina lan egiten nuen hala ere. Batek daki, agian egunen batean gizon bat sartuko da dendara, Ilargitik etorrita, eta seko maiteminduko da nirekin eta konponduta izango dut bizimodua.

Johannak presatu beharra zuen; emakume haren kontu kontari jardun beharrak berandutua zuen. Etxera itzuli behar zuen lehenbailehen, eta egin berri zuen erosketa gorde, Sabitha eskolatik itzuli baino lehen.

Akordura etorri zitzaion, orduan, Sabitha kanpoan zela; haren amaren lehengusinak, izeba Roxannek, asteburuan eramana zuen, neskato aberats bati dagokion bizimodua izan zezan Toronton eta neskato aberatsen eskola batean ikas zezan han. Pauso bizkorrean jarraitu zuen, hala ere; hain bizkor ezen morroi batek, drugstorearen aurrealdean bermaturik paretari eutsi beste zereginik ez zuenak, «non da sutea, ba?» bota zion, zirtolari. Erritmoa mantsotu zuen, arreta ez erakartzeko.

Soinekoaren kutzak enbarazu egiten zion. Nola demontre jakin behar zuen berak kartoizko kutxa haiek zituztela dendan, arrosak eta kaligrafia purpuran trebeska *Milady's* idatzirik zutenak? Tximinoaren uzkia baino nabarmenago.

Ergela sentitu zen ezkontza-kontuak aipatu izanagatik, beren artean ez baitzuten inoiz halakorik hizpidera ekarri, eta gogoan hartu behar zuen. Hainbeste gauza esan —edo idatzi— zizkieten elkarri, hainbesteko txera eta grina adierazi, ezen ezkontza bera ahotan hartzea ere oharkabean pasatu zitzairen, nola gertatzen den goizean ohetik altxatzeaz ari garelarik go-

saria aipatzen ez dugunean, nahiz eta badugun, badugunez, gosaltzeko asmoa.

Nolanahi ere, hobe zukeen isilik egon.

Kalearen beste aldean, McCauley jauna ikusi zuen, berearen kontrako noranzkoan zihoala. Arazorik ez: aurrez aurre topo egin izan balute ere, ez zion inola ere erreparatuko soinekoaren kutxari. Hatz bat kapelara eraman eta aurrera egingo zuen, emakume hura bere etxezaina zela ohartuta beharbada, edo beharbada ez. Beste gauza batzuk zituen buruan, eta ondotxo zekiten denek gizon hark une hartan besteek ikusten zuten hiriari ez, beste bati begiratzeko ziola. Lanegun guzti-guztietan –eta inoiz, burua auskalo nora joanda, baita jaiegun edo iganderen batean ere– Exhibition Roadetik gora hirigunerantz abiatzen zen, bere hiru piezako trajeetako bat, soingaineko arina edo soingaineko lodia bestela, feltrozko kapela grisa eta zapata ziratu distiratsuak jantzirik, uhalaria- eta larruki-dendaren gainean oraindik ere mantentzen zuen bulegoraino. Aseguru-etxea esaten zioten, nahiz denbora luzea zen han ez zela asegururik saltzen. Bartzuetan, eskaileretan gora egiten zuen baten batek, hari bisita egiteko, eta bere polizari buruzko galderaren bat egiten zion, edota lursailen mugei buruzkoak edo hiriko onibar baten edo inguruetakoko etxalderen baten historiari buruzkoak maizago. Mapaz beterik zuen bulegoa, mapa zaharrak eta berriak, eta ez zen harentzat plazer handiagorik mapa horiek zabaldu eta egina zioten galderatik askoz harago hedatuko zen azalpen batean murgiltzea baino. Egunero hiruzpalau aldiz bulegotik irten eta kalean paseatzen zen, orain bezala. Gerra-garaian lastategian gorde zuen bere mclaughlin-buicka, eta oinez joaten zen leku guztietara, etsenplu emateko. Eta balirudike etsenplu ematen jarraitzen zuela oraindik, hamabost urte geroago ere. Eskua eskuari lotuta bizkarraldean, bere lursailak ikuskatzen

ari den etxejauna edo bere jarraitzaileei atseginez behatzen dien sermoigilea nola. Nahiz eta harekin gurutzatzen zirenen erdiek gizon hura nor zen ideiarik ere ez zuten.

Hiria aldatuta zegoen; Johanna hara iritsi zenetik ere asko aldatu zen. Merkataritza-jarduera kanporantz mugitzen ari zen, autobide ondora, eta baziren jada kanpoalde hartan hipermerkatu bat, Canadian Tire bat eta motel bat, atsedengune eta toplesseko dantzari eta guzti. Herriko behealdeko denda batzuk beren burua egunean jartzen saiatu ziren, arrosa, malba edo oliba koloreko pintura erabiliz, baina pintura hura altxatzen hasita zegoen adreilu zaharren gainean, eta dendetariko batzuk hutsik ziren jada. Milady atzetik jarraituko zitzaien, itxura guztien arabera.

Johannak denda hartako saltzailea izan balitz nola jokatu zuen erabili zuen bere kabutan. Hasteko, ez zituen gaueko soineko sofistikatu haiek guztiak izango. Zer, orduan? Arropa merkeen alde eginez gero, Callaghanekin eta hipermerkatua-ekin lehian sartzea baino ez zuen lortuko, eta ez zen ziurrenik denentzako bezerorik. Umeentzako arropatxo panpoxak, akaso. Amonak eta izebak erakarriko zituen horrela, eta horiek, dirua eskuan, prest egoten ziren halako gauzetan gastatzeko. Hori bai: amarik ez zitzaion helduko; Callaghansera joango ziren haiek, diru gutxiago eta zentzu gehiago izanik.

Nolanahi ere, bera –Johanna– izan balitz denda hartako arduraduna, ez zuen inoiz erdietsiko jendea erakartzea. Azkar asko ikusiko zuen zer egin behar zen une bakoitzean, baita nola egin behar zen ere, eta batetik bestera ibiliko zen, lanean ari ziren pertsonak kontrolatzen. Baina ez zuen sekula inor xarmatuko edo limurtuko. Hartu edo utzi, izango zen haren jarrera. Eta utzi egingo zuten denek.

Bakanak ziren Johannari nahitasuna ziotenak, eta aspalditik konturatuta zegoen bera. Sabithak, adibidez, ez zuen malko bat ere isuri agurtu zuenean, nahiz eta edonork esango zuen Johanna izan zela Sabitharentzat ama bat izatetik hurbilen zegokeena, neskatoari ama hil zitzaionez geroztik. McCauley jauna nahigabetu egingo zen Johannak alde egitean, zerbitzu ona eman ziolako eta zaila izango zitzaiolako emakume hura ordezkatzeari, baina hori izango zen dena. Bai McCauley jauna, bai biloba, hatz-mamietan hazitakoak ziren; egozentriko hutsak. Eta auzokoak, zalantzarik ez da, poztu egingo ziren. Etxearen alde banatakoekin izan zituen arazoak Johannak. Alde batean, auzokoen txakurra izan zen arrazoa: Johannaren lorategian ibiltzen zen zuloak egiten, hezurak ezkututzen eta berriro azaleratzen, nahiz eta bazuen, bazuenez, beraren lorategian egitea. Beste aldean, gereziondo beltzagatik izan zen: McCauley tarren lursailen zegoen, baina bizilagunen lorategiaren gainera hedatzen ziren adarretan izaten zuen fruitu gehien. Kasu batean zein bestean kalapita sortu zuen Johannak, bai eta azkenean irabazi ere. Txakurra loturik zegoen orain, eta beste aldeko bizilagunek ez zituzten gereziak ukitzen. Esku-eskaileraren laguntzaz aise iritsiko zen Johanna ondoko lorategi gaineko adarretara, baina auzokoek jada ez zituzten adarretatik txoriak uxatzen, eta uzta, ondorioz, ez zen lehengo bezalakoa.

McCauley jaunak utzi egingo zien auzokoei gereziak hartzen. Eta utzi egingo zion txakurrari zuloak egiten. Beragandik etekina ateratzen utziko zien. Neurri batean, jende hura berria zelako, eta etxe berrietan bizi zirelako, eta beraz nahiago zuelako haiei arreta ez jarri. Garai batean hiruzpalau etxe handi baino ez zeuden Exhibition Roaden. Haien aurrean, azoka gunea zegoen, udazkeneko azoka nagusia egiteko lur eremua (Nekazaritza Erakustazoka zuen izen ofiziala, hortik kalearen izena),

eta tartean, fruta-arbolak eta belardi txikiak. Dozena bat urte lehenago edo, saldu egin zituzten lur haiek, sail erregularretan, eta etxeak eraiki zituzten haietan: etxe txikiak, bi solairukoak eta solairu bakarrekoak, elkarren segidan txandaka eraikiak. Eta dagoeneko hondatu samar ageri ziren batzuk.

McCauley jaunak pare bat etxetako bizilagunekin soilik zuen tratua: eskolako maistrarekin –Hood andereñoa– eta haren amarekin, batetik, eta zapatak konpontzeko dendakoekin –shultzdarrenak–, bestetik. Shultzdarren alaba, Edith, Sabitharen lagun mina zen edo izana zen, normala zen moduan, eskolan maila berean zeudelako –azken urtean gutxienez, Sabithak errepikatu behar izan zuenez geroztik– eta elkarrengandik hurbil bizi zirelako. McCauley jaunari ez zitzaion axola izan; beharbada sumatzen zuelako lehenago edo beranduago Sabitha handik lekutuko zela, beste bizitza mota bati ekiteko Toronton. Johannak, berriz, ez zuen sekula Edith aukeratuko, nahiz eta neska ez zen inoiz ere lotsagabe edo gogaikarri agertu etxera etorri izan zenetan. Zozoa ere ez zen. Agian hori zen arazoa: neska argia zela, eta Sabitha ez zen hain argia. Maltzurto egin zuen Sabitha.

Hura dena bukaturik zegoen orain. Behin Roxanne lehen-gusina –Huber andrea– agertu zelarik, shultzdarren neskatoa Sabitharen haurtzaroko iraganaren parte bihurtu zen.

Gauzak lotzera noa zure altzariak abal bezain pronto trenez bidaltzeko zuri eta ordainduta ere utziko dut zenbat kostako den jakin orduko. Ondo etorriko zaizkizula pentsatu dut. Imajinatzen dut ez zarela harrituko esaten badizut bara joatea pentsatu dudala, ez dut uste inportako zaizunik eta laguntzeko moduan egongo naiz horrela, hori espero dut.